

Auzotarrentzat irekita dago jadanik Arantzazuko Ama ikastolako mediateka

Fortuna kirol elkarteak eta Taupada sanba taldeak eraberritze lanetarako laguntza eman dute

Xabier Etxabe

Uholdeek kaltetuta altzariak Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolako korridoretan ikus daitezke oraindik. Perituek euren ikuskapena bukatzea falta dela arazoitu du Itsaso Alkorta ikastolako zuzendariak. Nahiz eta uraren indarrak azaroan utzitako arrastoa oraindik ere agerian egon, normaltasunera itzultzeko pixkanaka ari dira pausoak ematen. Atzo beste urrats bat eman zuten: Amundarain mediatekak ateak ireki zituen.

Denera, bost mila liburu, CD eta bestelako dokumentu ezertarako on utzi zituen urak. Hilabeteotan udal liburutegi saretik jasotako materialarekin hutsik geratutako eremua bete dute. Batez ere, haur eta gazte literatura jaso dutela adierazi du Itsaso Alkorta. «Egunotan, liburu eta material hori guztia katalogatzen, es-talkiak jartzen eta tokia prestatzen aritu gara», zehaztu du. Ordenagailuak falta zaizkie, baina, agindu dietenez, «iristear» daudela dio ikastolako zuzendariak. Urak zortzi bat ordenagailu hondatu zituela kalkulatu du.

Albiste pozgarria izango da, hortaz, ikastolako ume, guraso irakasle nahiz auzotarrentzat mediateka berriz ere zabalik ikus-tea. Itsaso Alkorta nabarmendu



Martutenen dagoen Arantzazuko Ama ikastolako mediateka. X.E.

duenez, auzoari irekitako mediateka da. 17:00etatik 20:00etara nahi duena sar daiteke eta kontsultaren bat egin edota liburu- ren bat mailegatu dezake. Egune-ro mediatekan 20-25 lagun elkar-tzen direla azaldu du; «ikastolako haur eta familiak gehienak». Irakurtzeko ala sarean murgiletzeko gogoz den edonor sar daiteke, dena den.

Hiru hilabetero, Loiolako kultur etxearen laguntzaz, helduentzako liburu zerrenda bidaltzen

diete eta nahi duenak mailegatu nahi duen liburuaren eskaera egin dezake.

Mediatekak galdu zuen martxa berreskuratzeko, udalak egindako eraberritze lanak edota Jaurlaritzak egindako ekarpena handia izan da. Are esanguratsuagoa izan da, ordea, Fortuna kirol elkarteak eta Taupada sanba taldeak eskainitako laguntza. Psikomotrizitate gela eta mediateka txukuntzeko bi mila euro inguru jaso dituztela azpimarratu du

Itsaso Alkorta. «Fortunak Gabonetan antolatu zuen soinketa saio berezi batean bildutako dirua uholdeak eragindako sarraskiari aurre egiteko bideratzea erabaki zuten». Taupadak dantzaldietan jasotako diruarekin, berriz, mediateka hornitu ahal izango dutela erantsi du zuzendariak.

Azaroaz geroztik, ezin izan dute ez psikomotrizitate gela ez gimnasioa erabili. Soinketa kanpoan egin behar izan dute. xetxabe@hitza.info

Uxotegiko ezohiko batzordeak etzi egingo du lehenengo bilera

Udal ordezkarien aurrean nork agertu beharko duen eta bileren maiztasuna erabaki beharko dute

X.E

Ramon Gomez PPko bozeramaile eta Uxotegiren afera argitzeko eratu den ezohiko batzordeko presidentek argitu duenez, Gaztelubide bideko 5. atariko okupazioaren inguruko nondik norakak mahai gainean jartzeko lehenengo bilera etzi egingo dute, 12:30ean.

Batzordearen dinamika nolako izango den finkatzeko bilera izango dela azaldu du Ramon Gomezek. Astero egin nahiko lituzkeela zehaztu du presidentek, maiztasuna, ordea, denen artean finkatu beharko dutela esan du. Horretaz gain, batzordekideen aurrean nork agertu behar duen erabaki beharko dutela gaineratu du. Udal talde bakoitzak bihar arte izango du proposamenak aurkezteko aukera.

Ramon Gomezek parte har dezaketenen izenik aurreratu nahi izan ez duen arren, alkateak eta bere idazkaria den Josetxo Ibazetak parte hartuko dutela azaldu du. Juan Karlos Izagirre udaleko arduradun nagusi gisa eman beharko ditu azalpenak; Josetxo Ibazetak, berriz, okupazioaren egunean udaltzain eta gazteen artean bitartekari lanetan aritzez gatik.

Irudia > Kaia



ONDAREA ZAINTEKO ALDARRIKAPENA

Kaia inguratzen duen harresiaren egoera «tamalgaria» dela salatu du Ramon Gomez PPko zinegotziak. Hiriko ondarearekin altxorretako bat dela eta «utzikeria» nagusi dela adierazi du. «Itsasotik hirira sarbide nagusietakoa dena txizaleku bilaka-

tu da», adierazi du. Hiria erre eta berreraiki zutela bigarren mendeurrena beteko da datorren urtean eta ingurua txukun mantendu dadin, udal gobernuak neurririk hartuko ote duen galdetuko du udal taldeak. IRUTXULOAKO@HITZA

Irudia > Ondarreta



BESTE PARKE BATEN BILA

Ondarretak jatorrizko itxura berreskuratzeko egiten ari diren lanen ondorioz, hondartzako parkea kendu dute. Antiguako eta Ondarretako umeak, baina, jolas parkerik gabe geratu direla plazaratu du PSE-EEko zinegotzi Marisol Garmendiak. Inguruan beste jolas parke bat jartzeko beharra azaldu du. X.E.